

Eskoriatzako III. Mendi Astea

2015/05/27

Igandean, maiatzak 24ean hasi egin zen Eskoriatzako III. Mendi Astea. Bertan, hainbat ekitaldi desberdin antolatu egin dira. Igandean, ibilaldia egin zen, Barria, Agurain eta Sorginetxetik zehar. Astelehenean, Itoitz Armendarizi, Mushingeko munduko txapeldunari egin zitzaion omenaldia Zaldibar Antzokian. Asteartean, Alex Txikon alpinista eta abenturazaleak hitzaldia eman zuen Eskoriatzako fakultatean. Ostegunean, Geocoaching izango dugu plazan, bertan zenbait orientazio joko antolatuko direlarik. Ondoren, ostiralean, Eskolore-ren aurkezpena izango dugu plazan. Larunbatean, Eskoriatza Kirol Elkartearen eguna izango da eta amaitzeko igandean Txikirri Txikirri mendi martxa antolatuko da, hildako mendizale eskoriatzarraren omenez.

Beraz, oraindik aukera daukazu aste honetan zehar Eskoriatzatik pasatzeko eta bertako giro ederraz gozatzeko. Anima zaitetz eta parte har ezazu Mendi Aste honetan!

